



EMAITZA NAGUSIEN LABURPENEA

E.A.E.n Hutsik dauden Etxebizitzetako buruzko 2007ko Bi Urtez Behingo Estatistika

Agiri honetan, Euskal Autonomia Erkidegoan hutsik dauden etxebizitzetako Kuantifikazio eta Karakterizazioari buruzko Bi Urtez Behingo Inkestaren emaitza nagusiak aurkezten dira. Aipatu inkesta 1997. urteaz geroztik egiten da.

Emaitzen laburpena hurrengo edukietan dago egituraturik:

- **Kuantifikazioa**
 - *Erabileraren arabera sailkapena E.A.E.n*
 - *Banaketa Lurralde Historikotara*
 - *Beste eremu espazial batzuetako erabilerekin hurbilketa*
 - *Bilakaera 2001az geroztik*
- **Karakterizazioa**
 - *Duela gutxi okupazioa*
 - *Jabetza mota*
 - *Jabetzaren helburua*
 - *Jabetzaren etxebizitza*
 - *Eskaintzan dauden etxebizitza hutsak*
 - *Egiturazko ezaugarriak*
- **Fitxa Teknikoa**



1 > E.A.E.ko Hiri-erroldeko ataletako etxebizitzaren kuantifikazioa

1.1 Erabileraren arabera sailkapena E.A.E.n

I. Koadroa.- E.A.E.ko guztizkoa

ETXEBIZITZAK GUZTIRA..... 853.271

- ✓ Okupatuta 95,1%
- ✓ Hutsik 4,9%
 - Denboraldikoak edo 2. bizitetzak... 2,2%
 - Jenderik gabe..... 2,7%
 - Eskaintzan 0,5%
 - Kudeatzeko modukoak..... 2,2%

- E.A.E.ko hiri-erroldeko ataletan jasotako etxebizitzaren %5a hutsik daude: 42.000 inguru.
- Horietatik, 18.500 inguru “kudeatzeko moduko” gisa daude sailkatuta; hau da, %2a baino ez etxebizitzaren guztizko stockarekiko.

1.2 Banaketak Lurralde Historikoa

II. koadroa.- Lurralde Historikoa


	Etxebizitzak Guztira	Okupatuta (guztizkoarekiko %)	Hutsik		
			Guztira (guztizkoarekiko %)	Denbor. (hutsekiko %)	Jenderik gabe (hutsekiko %)
Araba	133.337	91,4%	8,6%	58,8%	41,2%
Gipuzkoa	269.647	94,5%	5,5%	33,4%	66,6%
Bizkaia	450.287	96,5%	3,5%	41,6%	58,4%

- Termino erlatiboetan, etxebizitza hutsen pisua handiagoa da Arabako Lurralde Historikoan; denboraldiko etxebizitza edo bigarren bizitetzaren garrantzia (erlatiboa, halaber) nabarmena da lurralde horretan.




Estadística bienal 2007 sobre vivienda vacía en la Comunidad Autónoma de Euskadi

G.1.- Etxebizitzak Lurraldeka erabileraren arabera



G.2.- Etxebizitza Hutsak Lurraldeka, motaren arabera



III. Koadroa.- Jenderik gabeko etxebizitzak Lurraldeka, gutxi gorabehera

	Eskaintzan (jenderik gabekoekiko %)	Kudeatzeko modukoak (jenderik gabekoekiko %)
Araba	24,6%	75,4%
Gipuzkoa	14,5%	85,5%
Bizkaia	17,4%	82,6%

- Kudeatzeko moduko etxebizitzak gutxi gorabeherako kopurua hau da:

- 4.000 inguru Araban
- ia 8.000 Gipuzkoan
- 6.400 inguru Bizkaian

1.3 Beste eremu espazial batzuetako erabilereko hurbilketa

IV. koadroa. - Eremu Funtzionala

	Etxebizitzak guztira	% Hutsik	% Denboraldikoak (hutsekiko)	% Jenderik gabe (hutsekiko)
Arrasate-Bergara	21.037	4,6%	7,4%	92,6%
Beasain-Zumarraga	21.359	7,7%	34,8%	65,2%
Bilbo-Arratia	935	0,9%	100%	0,0%
Bilbo-Enkarterriak	9.852	10,2%	30,3%	69,7%
Bilbo-Bilbo Handia	368.965	2,6%	26,5%	73,5%
Bilbo-Mungia	6.552	13,8%	75,4%	24,6%
Donostialdea	168.183	3,7%	30,8%	69,2%
Durango	28.662	0,8%	19,3%	80,7%
Eibar	28.319	7,9%	40,1%	59,9%
Gernika	27.368	13,6%	77,0%	23,0%
Biasteri	8.146	40,9%	81,8%	18,2%
Laudio	13.367	6,9%	26,0%	74,0%
Tolosa	13.337	6,3%	11,0%	89,0%
Vitoria-Gasteiz	113.487	6,6%	52,0%	48,0%
Zarautz-Azpeitia	23.702	12,1%	47,9%	52,1%

- Etxebizitza hutsen ehuneko handiena duten Eremu Funtzionalak hauek dira:

- “Biasteri” (%41),
- “Bilbo-Mungia” (%14),
- “Gernika” (%14) eta
- “Zarautz-Azpeitia” (%12)

- Lehen hiru eremuetan, horren arrazoia denboraldiko etxebizitzak kopuru handia da: ¾ak baino gehiago.
- “Arrasate-Bergara”, “Tolosa” eta “Durango” Eremu Funtzionaletan, jenderik gabeko etxebizitzak pisu erlatiboa nabarmena da.




V. koadroa.- Udal Eremuak

- Etxebizitza hutsen ehuneko handienak udalerri txikienetan daude. Horrela, “2.500 biztanletik beherakoak” taldean %30ekoa da; “2.500 eta 10.000 artean” taldean, berriz, %10 ingurukoa (batez bestekoa bikoiztuz).
- Hiru euskal hiriburu administratiboetan eta udalerri handietan, etxebizitza hutsei buruzko datu erlatiboak Erkidegoaren batezbestekoa baino txikiagoak dira.
- Udalerrri txikietan, denboraldiko etxebizitzaren presentzia txikia da. Hala ere, Donostian horrelako etxebizitzek pisu handia dute (%40).

	Etxebizitzak guztira	% Hutsik	% Denboraldik oak (hutsekiko)	% Jenderik gabe (hutsekiko)
2.500 biz. tik beherakoak	31.537	29,3%	79,9%	20,1%
2.500 eta 10.000 artean	100.918	9,8%	61,2%	38,8%
Udalerrri Ertainak	220.695	4,7%	27,6%	72,4%
Irun	24.196	3,6%	5,3%	94,7%
Errenteria	15.874	4,2%	0,9%	99,1%
Barakaldo	42.473	3,3%	31,0%	69,0%
Getxo	30.708	1,1%	0,0%	100,0%
Portugalete	20.341	1,7%	4,0%	96,0%
Santurtzi	19.783	3,0%	6,4%	93,6%
Basauri	17.062	3,1%	0,0%	100,0%
Donostia	80.408	2,5%	40,3%	59,7%
Bilbo	153.725	1,9%	6,5%	93,5%
Vitoria-Gasteiz	95.551	3,1%	14,0%	86,0%

1.4 Bilakaera 2001az geroztik

G.3.- Etxebizitza hutsen ehunekoaren bilakaera 2001az geroztik




- Azken lau laginketetan datuek izandako bilakaerak erakusten duenez, urte hauetan etxebizitza hutsen pisu erlatiboa pixkanaka txikitu egin da. Salbuespena Araba da, 2007an ehunekoak gora egin baitu.




Estadística bienal 2007 sobre vivienda vacía en la Comunidad Autónoma de Euskadi

G.4.- Jenderik gabeko etxebizitzaren ehunekoaren bilakaera (etxebizitzaren guztizkoarekiko) 2001az geroztik



- Jenderik gabeko etxebizitzaren ehunekoak lau puntu egin du behera 2001az geroztik.
- Jaitsiera hori nabarmenagoa izan da Bizkaian.

G.5.- Kudeatzeko moduko etxebizitzaren ehunekoaren bilakaera (etxebizitzaren guztizkoarekiko) 2003az geroztik



- Etxebizitzaren guztizkotik kudeatzeko moduan dauden etxebizitzaren ehunekoak maila baxuenera iritsi da, Erkidego osorako, 2007an.
- Gauza bera gertatu da Bizkaia eta Gipuzkoan.




2 >

Etxebizitza Hutsen Karakterizazioa

Atal honetan aztertuko den taldea etxebizitza hutsena da (jenderik gabeak edo denboraldikoak), Euskal Autonomia Erkidegoko hiru lurralde historikoak kontuan izanik.


2.1 Duela Gutxiko Okupazioa

G.6.- Etxebizitzaren azken erabilera



- Antzemandako etxebizitza huts ia guztiak (denboraldikoak barne), %92a, noizbait erabiliak izan dira:
 - %64a azken bi urteetan, eta
 - Duela gutxi okupatu ez direnen %79a, aurreko urteetan erabili dira.
- Noizbait okupatu izan diren etxebizitzetatik, gehienak (%98a) “**etxebizitza**” gisa erabili dira azkeneko aldiz.


G.7.- Etxebizitza erabiltzeko modua



- “**Ohiko etxebizitza**” nabarmentzen da erabileren artean. Salbuespena Araba da, bertan %53a baino gehiago “**denboraldikoak edo bigarren bizitetxeak**” baitira.



G.8.- Erabiltzaileak etxebizitzaren azken okupazioan




- Etxebizitzaren azken okupazioan, erabiltzaileen %89a “**jabeak**” izan ziren.
- “**Alokairuan**” dauden maizterrak ez dira %9a iristen.

2.2 Jabetza Mota

- Kasu ia guztietan, etxebizitza hutsak “**partikularren**” eskuetan daude. Administrazioarenak diren etxebizitzak ez dira %1,5era iristen.

G.9.- Etxebizitza hutsen jabetza mota




2.3 Jabetzaren Helburua

- Aurreko azterketa kuantitatiboan, denboraldiko etxebizitzaren edo bigarren bizitxetxeen kopuruak etxebizitzaren guztizkoarekiko duen garrantzia azaldu dugu. Hutsik dauden etxebizitzaren %45 inguru izan daitezke. Galdesortan jasotako gainerako helburuetatik, informazio faltagatik zehazten ez direnak kentzen baditugu (“Beste batzuk; zehaztu gabe”), hauek nabarmentzen dira:

- ✓ Euskal Autonomia Erkidego osoan, “**Seme-alabentzat gordetzea**” eta “**Inbertsioa**” dira jabetzaren helburu nagusiak.
- ✓ Araban “**Inbertsioa**” da helburu nagusia, eta Gipuzkoan, berriz, “**Seme-alabentzat gordetzea**”. Bizkaian bi helburuak parekatuta daude eta batez besteko orokorrarekin bat datoz.

G.10.- Etxebizitzaren jabetzaren helburuak, Lurraldearen arabera






2.4 Etxebizitza Hutsen Eskaintza

- Etxebizitza hutsen %3a inguru alokairuan eskaintzen dira. Salmentarako eskaintzen diren etxebizitza hutsak %7a baino ez dira.
- Alokairuan edo salmentarako eskaintzen diren etxebizitzak batura ez da iristen etxebizitza hutsen %10era (etxebizitza guztien %0,5a).


G.11.- Etxebizitza hutsen eskaintza Lurralde Historikoaren arabera



2.5 Egiturazko Ezaugarriak

- Tamaina ertaineko etxebizitzak (%39) eta tamaina txikikoak (%35) dira nagusi.
- Gipuzkoan etxebizitza asko tamaina ertainekoak dira “75 eta 99 m² artean” (%42); Bizkaian, aldiz, tamaina txikikoak nabarmentzen dira (%40).


G.12.- Etxebizitza hutsak azalera erabilgarriaren arabera, Lurralde Historikoka






Estadística bienal 2007 sobre vivienda vacía en la Comunidad Autónoma de Euskadi

G.13.- Etxebizitza hutsak gela kopuruaren arabera (egongela eta sukalde barne), Lurraldeka



- Etxebizitza hutsen %60ak inguruk 5 gela ditu (%43) edo gehiago (%15).


G.14.- Etxebizitza hutsak bainugela eta komun kopuruaren arabera, Lurraldeka



- Etxebizitza hutsen %60ak komun bakar bat du.

- Etxebizitza hutsen berokuntza sistema nahiko kaskarra da. %45ak berokuntza tresna ez zentralak ditu.
- Etxebizitzen erdiak baino gutxiagok du hodi bidezko gasa.
- %20ak garajea du, eta heren batek trastelekua.


G.15.- Egiturazko beste ezaugarri batzuk





Estadística bienal 2007 sobre vivienda vacía en la Comunidad Autónoma de Euskadi


G.16.- Gutxi gorabeherako eraikitze urtea Lurralde Historikoko (E.A.E.)




- Etxebizitza hutsen %80a 1985. urtea baino lehenago daude eraikita. %27a, berriz, 1950. urtea baino lehenago.

- Joera hori hiru Lurraldeetan antzematen da. Bizkaian, etxebizitza hutsen stockak zaharragoa dirudi.


(ARABA)



(GIPUZKOA)



(BIZKAIA)





3 > Fitxa Teknikoa

Erreferentzia Unibertsoa: E.A.E.ko hiri-erroldeko ataletan⁽¹⁾ dauden familia-etxebizitzak.

Laginareen Diseinua⁽²⁾: Etapa bikoa;

Laginketaren 1. etapa.- eremu geografikoen eta tipologien arabera estratifikatutako errolda-atalak.

Laginketaren 2. etapa.- familia-etxebizitzaren atariak.

- ***Landa-lana 2007ko maiatza eta ekainean burutu da, eta aurrez aukeratutako lagin-atariak bertikalki eta exhaustiboki aztertu dira.***
- ***Atari horietako etxebizitza guztiak aztertu dira.***
- ***Karakterizazio-informazioa bildu da, inkesta baten bidez, antzemandako etxebizitza huts guztietan***⁽³⁾.

⁽¹⁾ E.A.E.n 1.708 errolda-atal daude, eta horietatik 1.486 hiri-erroldeko atal gisa daude sailkatuta ("10etik beherako biztanleria barreiatua dutenak"). Hiri-erroldeko ataletan 858.271 etxebizitza azaltzen dira guztira. 2007an, hiri-erroldeko atalen lagina 650etan finkatu zen.

⁽²⁾ Eragiketan erabilitako atarien eta hiri-erroldeko atalen lagina EUSTATEk emana da eta Biztanleria eta Etxebizitzari buruz eskura dauden azken datuetatik atera zen.

⁽³⁾ 2007ko Eragiketan, 5.175 posta-balioespen aztertu dira eta 55.228 hutsune aurkitu dira. Horietatik 54.579 etxebizitzak dira eta 649 lokalak. Aurkitutako lagin-hutsune guztiak 2.893 izan dira.